

ORAINO EZ DUT IKASI ZERGATIK

Perpetua Saragueta
(Mezkiritz, Erroibar, Nafarroa Garaia, 1905 – Iruñea, 1986)

Lenago uste gindue aurrak Lezemotzko ondotik eta Berregutik ekartzen zituela aitek. Orain uste dut denek badakitela dena den bezala. Lenago emaginek erraten zigu aurrei. Gero nik egiten niote eskutitz bat osaba izebei eta bataioko aitetxi amatxi izen bear zutenei. Gero amatxi zena joaten ze erretore jaunarengana erratera baginduela aur bat geiago eta bateatu bear ginduela alako edo olako egunean. Aurra garbitu eta beztitu eta paratzen ze bere seaskan. Ez dut egundaño burua lotzen ikusi niorei, ez zeien oztu paratzen zitzaioten gorra bat.

Aur ilak sortzean bateatzen zire beren etxetan erranez: ure botatzerakoan kapaz bazara bateio santua artzeko, nik bateiatzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. Eta istenpaten buruan edo 5 edo 6 orduen buruan segurki zirelaik ile zela, etxeain altzineko baratzean lurperatu egiten zute. Aur ondokoak, baratze berean, baño bertze toki batean lurperatzen zire.

Aurra ongi eta osasun ederra izanik ere, berdin biramonian bateatzen zire. Niri ala egin zirate, dagonilain iruan ortzegunan sortua eta biramonean 4an lemexiko ortzilerian bataiatua erriko elizan. Emaginek, aitetxi bere lagunarekin eta amatxi berearekin, apeza eta 7 urteko lengusu bat, ez delaik aurraren anaia bat, kandela idukitzeko aurra bateatzeko denboran. Aurra aitetxik idukitzen du.

Denbora anitzez erriko erretorak berak ematen zio izena eta denei ematen zigu bateio eguneko sanduaren izena. Orrengatik damat nik Perpetua. Eta noraraño zen aren manatzea erran bear dut nola gertzatzen zen. Jose Deunaren egunean ereman zioite mutiko bat bataiatzera. Aurrain aita ze Jose eta etzute niok ere nai aurra Jose izen zaien eta aitetxik Antonio zuen izena eta izen ori eman nai zioite eta erretoreak etzeko utzi eta, gañera, erran zioite: ez zuk nai duzuna eta ez nik nai dudena, orai deituko da Victoriano. Euskalduna ze, baño erdara ere zerengatik erran zioite: “Victoria no”, ez zuk eta ez nik ez dugulakoz egin nai deguna.

Geienean bateiatzen da egunain erdian Mezkiritzko elizan eta eguerdian bazkaria ongi dago. Berera juaten zire bataioan egon direnak, bizi diren aitetxi amatxiek eta aite eta amaren anaia arrebak. Geienean ikusi dut aragi egosiein zopa, txitxirioa, aragi

egosia tomatearekin, gero umerri denboran balin baze umerria, bertzelaz ollaskoak, baño aragi egosiarekin, tomateaikin batean, ollo saltsa ederra ateratzen zen umerria baño lenago. Gero sagarrak eta esne eta arrotzekin eginikeko mai azken zerbait. Eta gero aketa edo kafea.

Amai eta aurrei egiten zire oroipenak, geienan aurrarendako eskuz eginikeko jantzi zerbait. Amarendako ollo salda, ardizar, ollo onak, ardo on zenbait quina edo iduri zenbait, bizkotxak ere edo sos pixka zenbait etzaion faltatu deus ere, inderra ar dezan len baño len. Aurrarekin juaten zire elizara, emaginek laguntzen zitue eta erematen zute apezarendako opil aundi bat eta bonbil edo botella bat ardo ona.

Elizara ateratzen zen eguna bedeinkapena artzera. Ordu artio ezin atera zire etxetik kanpora. Ikusi izen dut buru gañan tella bat eta amak erran zire ama etzela garbia elizan sartu artio. Oraño ez dut ikasi zetaz ama bat aur bat mundura ekartzen duelaik zikine dela orrengatik, aur bat ekartzeagatik mundura.

IÑIGO, Andres (2011). [Perpetua Saragueta: eskuidatziak eta hiztegia.](#) Iruñea: Nafarroako Gobernua; Bilbo: Euskaltzaindia. (88-89).